

SABINO CUADRA

X. legealdiko diputatu jaun txit ohoragarria.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkia: Josu Santesteban

«Gorringoa biziago, zapore gozoagoa du arrautzak»



Madrileko abentura esplikatuko zeniguke berriz, mesedez?

Ondo dago galdetzea han egoteak zerbaitetarako balio duen. Tentsio minimo bat mantenduko dugu hala, eta neurria hartuko diogu hangoari, ez baita beti erraza.

Baina ez al ziren geure eskubide nazionalak urratzen dituzten instituzio inposatuak?

Eta jarraitzen dute izaten. Horregatik bertan egiten dugun lana da, neurri batean, kontralana. Areago utzi nahi dugu agerian geure herriak jasaten duen inposizioa.

Nola, Espainia aldeko diputatuei juxtu kili-kili eginez?

Joaten ez ginelako kexu ziren lehen; orain joaten garela, talde propioa izateko aukera lapurtzen digute, eta egunero mozten eskubideak. Azkura badute, hazka egin dezatela.

Azaldu al dizu Gallardon ministroak "zuzenbide estatuaren mekanismoak" zertan diren?

Gallardonek defendatzen duen Estatu, zuzenbidekoa baino, gehiago da zirinbidekoa. Jue-fiskalak ere kexu dira haren neurrigaberiek. Atera kontuak.

Gobernuak egin ez duena da: krisiaren ardura-dunei izen-abizenak jarri.

Banketxeek, espekulazioaz, torturaz hitz egiteari utzi, eta bankariez, espekulatzailiez, torturatzailiez hitz egiten hasi behar genuke.

Banketxeak erreskatatu ondoren, hori bai.

Erreskateak bahituengatik eskatzen dira. Ez

da kasua. Banketxeek dute bahituta biztanleria. Mafiaz ari gara, eta mafiosoen.

Arrazoi zuen, beraz, Anbrosio deunak: lapur da aberatsa, edo lapurren seme-alaba.

Ateoa naiz, baina arrazoi zuen tipoa. Esaldi bakarrean laburbildu zuen Karl Marxek milaka orritan esan zuena.

A, baina eskerrak Euskal Herrian ez den halakorik gertatzen.

Euskal Rh-ak ez du lapurren aurkako anti-gorputzik. Hemen ere badira aberats-ebasleak, eta ez Negurin soilik.

Zertan gabiltza, bada, sozialean ez eta nazio eraikuntzan?

Arrautzek, gorringorik gabe, zuringoa soilik izan balute, ez zuketean erdietsiko sukaldean duten lekua. Eta gorringoa biziago, jakina da, zapore gozoagoa du arrautzak.

Atera da zeure baitako sindikalista.

Sindikalista bat ez da sen ona eta duintasun apur bat duen langilea baizik. Hortik abiatuta, antolatze beharra berez dator.

CCOO sindikatuan, adibidez?

Duela hamabost urte utzi nuen LABen sartzeko. Batasun sindikalak helburu izan behar du beti, eta garaipen handia litzateke.

Financial Times-en portadan agertzea beste?

Portada izatea polizia batek porrakada eman dizulako ez da sobera eskergarria. Nahiago nukeen biluzi integral bat. ■

